

Poesia zutabetan

Ze suerte, Eider, Beatriz Preciado ustekabeen ezagutzea! Katixa, ez irakurria izateko Volgako Batelariak baino hobe egin duzu irakurri gabekoen kritika!

Eider, zuk proposatu bezala gaiez aldatu aurretik –izan ere asko interesatzen zait zutabegileon profila zertan dabilen komentatzea–, testuan zehar egiten duzun beste galdera bati erantzun nahi nioke: “Emakumezko edo gizonezko sentitu al daiteke inor?”.

Bai. Botereek bat ala bestea sentitzera behartzen gaituzte uneoro. Beraz, genero disforiaren eremuetan aurkitzen dena, zure elkarriketatua, ezin egokiturik dabil beti. Hortik Preciaden saioa generoa dekonstruitzeko; edo Butlerrena, zeinak natural, berez gara genero batekoak edo bestekoak, hitzaren azpian datzan botereen kategoriazterketa sendoa egiten baitu; edo Wittig-ena, zeinak pentsamendu heterosexualaren amarruak azalarazten baititu; edo Irigarayrena, zeinak emakumea heterosexualitatearen eremu sinbolikotik kanpo dagoela salatzen baitu, gizonaren objektua izatera ere heltzen ez delarik.

Beste modu batez planteatuko dut galdera: euskaldun ala espainol senti al daiteke inor? Euskal Herriko politika bideei erreparaturik, baietz erabakitzea baino ez zaigu gelditzen. Kontua, beraz, ez da senti daitekeen, baizik eta sentitzeko manera hori nork ezarria den, nola, kategoriazterrek zer ezkutatzen duen? Biak batera izan daitekeen, euskaldun-espainol, gizon-emakume? Ala bat ez beste izan gabe bizi ote daitekeen? Azken galdera horren erantzuna ezezkoa baldin bada, batzuen ustez leninismoa baino ez zaigu gelditzen, eta derrigorrez gaude iraultzara kondenaturik. Gehiegitxo. Barkatu, dena den, euskalduntasuna eta generoaren arteko konparazioa, baina niretako, elkar argitzen dute.



Juanjo Olsagabere

Agirre

Rodriguez

Zutabegileak “norbere buruaz” mintzatzeari buruz... Nik aspaldi erabaki nuen nire burutik mintzatzea. Bat, dezentetan gu-aren azpian ezkutatzen –batzuek aldarrikatu nahiago lukete– nintzela ohartu nintzelako, eta bi, esatera ausartzen ez nintzena halako zutabe mengel, lainotsuen bidez lausotzen nuelako, batez ere, kutsu politikoko

zutabeetan.

Ala “norbere buruaz” aritze horrek nire gorabeherari buruz aritzea esan nahi ote du? Hala bada, ez zait gaizki iruditzen, ni-a ustez elkartasun handiagoko beste eremu batzuk bezain zilegia izateaz gain, askotan gizarteari buruz aritzeko metonimiari hoberena izaten baita. Hainbeste, Euskal Herriko zutabegintzan ni-a konkista ere badela.

Aste honetako zutabeen arakatzeko azkar txo bat eginez esanen nuke denetatik dagoela: batzuk, Xabier Larrañaga edo Koldo Aldabe, kasu, asko aritzen dira gai politikoari buruz; beste batzuek eguneroko bizitza pribatua eta politika nahasten dute zutabe berean zein zutabe desberdinetan, Uxue Apaolaza adibidez; beste batzuek nire argitzen dute errealitate soziala, Rikardo Arregi, demagun. Beste batzuk, Aurelia Arko-txa, konparazio batera, iraganeko kontuekin saiatzen dira gaurkoan argi egiten.

Beste batzuek, ni urduri paratzen naute –barkatu, baina nahiago dut izenik ez aipatu– “poesiaren” egitura zein irudiz sasitzen dute zutabea errealitateari buruz deritzote-

na mordoilo liriko-kriptikoa bihurtzeraino. Orduan, Gil de Biedmarren pentsu hura datorrit gogora: gaizki dabil poesia eta arrazoiaren nahastu dituen gizar-tea. Baina, arrazoiaren eremuari dagokio zutabea? Noraino da zutabeetako “poesia” egilearen iritzia estaltzeko trikimailua? ■

Nik aspaldi erabaki nuen nire burutik mintzatzea. Bat: dezentetan gu-aren azpian ezkutatzen nintzela ohartu nintzelako, eta bi: esatera ausartzen ez nintzena halako zutabe mengel, lainotsuen bidez lausotzen nuelako, batez ere, kutsu politikoko zutabeetan